



GILTZURRUN GAINEKO MUINEKO GAMMAGRAFIA

MEDIKUNTZA NUKLEARRA

ZER DA GILTZURRUN GAINEKO MUINEKO GAMMAGRAFIA?

Giltzurrun gaineko guruinen funtzioaren alterazioak bistartzeko azterketa bat da.

PROBA EGITEKO EGUNA:

Ez dago zertan baraurik egon.

ZERTAN DATZA?

Lehenengo egunean, erradiofarmakoa injektatuko dizugu, eta, ondoren, tentsio arterialaren kontrolak egingo dizkizugu.

Erradiofarmakoa eman eta 2-6 ordura eta 24 ordura lortzen dira irudiak. Tarteko denbora-tarte horietan, itzul zaitezke etxera edo lanera, ez baituzu ospitalean geratu beharrik.

PAZIENTEAREN AURRETIKO PRESTAKETA:

Badira zenbait farmako azterketaren emaitza alda dezaketenak; beraz, zer medikazio hartzen ari zaren jakinarazi behar diguzu.

Halaber, iodo-prestakin baten tanta batzuk hartu beharko dituzu proba egin baino egun batzuk lehenagotik proba egin eta zenbait egun igaro arte.

Paziente heldu batek miaketa horretan jasotzen duen erradiazio estimatua toraxeko 241 erradiografia sinpleren eta 2 urteko erradiazio naturalaren gutxi gorabeherako aldi baliokide baten baliokidea da.

Beharrezkoa izan daiteke azterketa erradiologiko bat egitea ordenagailu bidezko tomografia bidez (OT). Jasotako erradiazioa Medikuntza Nuklearreko miaketari gehituko zaio, honako datu hauen arabera (eskatutako OT modalitatea zein den):

<i>Miaketa</i>	<i>Dosi eraginkorra (mSv)</i>	<i>Torax-plaken baliokidea</i>	<i>Erradiazio naturalaren baliokidea</i>
<i>Buruko OT</i>	2	100	10 hilabete
<i>Toraxeko OT</i>	8	400	3,6 urte
<i>Sabelaldeko-pelbiseko OT</i>	10	500	4,5 urte

OHARTARAZPENAK

Proba hau kontraindikaturik dago haurdun dauden emakumeentzat.

Bularra emateko aldiak badago, eten egingo du Fisika Medikoko espezialistak ezartzen duen denboran.

Medikuak betetzeko:

- Farmakoren bat kendu baldin bada, jakinarazi farmakoaren izena eta kentze-data:

- Potasio ioduroa ematea eragozten duen arazo klinikorik ezagutzen duzu?